

TOKI ADMINISTRAZIOA

3

ADMINISTRACIÓN LOCAL

PASAIKO UDALA

Arlo Ekonomikoa

Dirulaguntzen Ordenantza orokorraren behin betiko onespena.

Udalbatzak, 2024ko uztailaren 29an udalbatzarrean hartutako erabakiaren bidez Pasaiaiko udalaren eta bere erakunde autonomoen dirulaguntzen udal ordenantzari hasierako onspena eman zitzaion.

Erabaki hau 2022ko abuztuaren 16an Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAREN 157. zenbakian argitaratu zen eta 30 laneguneko epea ezarri zen erreklamazioak aurkezteko.

Pasaiaiko Udalaren eta bere erakunde autonomoen Dirulaguntzen Ordenantza Orokorra 30 egunetz jendaurrean egon da, Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN 2024ko abuztuaren 16an argitaratu baitzen (157. zk.), eta jendaurreko epe horretan ez da alegaziorik aurkeztu. Beraz, ordenantza behin betiko onartutzat jotzen da.

Horiek horrela, testu osoa argitaratzen da, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 49. eta 70.2 artikuluetan ezarritakoaren arabera.

Erabaki honen aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salan, iragarki hau argitaratu eta hurrengo egunetik hasita 2 hilabeteko epearen barruan, betiere Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeko 46. artikuluekin bat etorritik.

Pasaia, 2024ko irailaren 30a.—Teo Alberro Bilbao, alkatea.
(7086)

Pasaiaiko Udalaren eta bere erakunde autonomoen dirulaguntzen Ordenantza Orokorra.

— Aurkibidea.

Atariko titulua. Xedapen orokorrak.

I. kapitulua. Xedea eta aplikazio-eremua.

1. artikulua. Xedea.

2. artikulua. Kontzeptua.

3. artikulua. Araudi aplikagarria.

4. artikulua. Araubide juridikoa.

5. artikulua. Bazterketak.

II. kapitulua. Dirulaguntza publikoetarako xedapen komunak.

6. artikulua. Dirulaguntzen Plan Estrategikoa.

7. artikulua. Printzipio orokorrak.

8. artikulua. Aurrekontu-kreditua.

9. artikulua. Dirulaguntzak emateko organo eskudunak.

10. artikulua. Dirulaguntzak emateko baldintzak.

AYUNTAMIENTO DE PASAIA

Área Económica

Aprobación definitiva de la Ordenanza General de subvenciones.

Por acuerdo de Pleno de la Corporación de 29 de julio de 2024 se aprobó inicialmente la Ordenanza General reguladora de la concesión de subvenciones.

Este acuerdo se publicó el 16 de agosto de 2024 en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa n.º 157 y se estableció un plazo de 30 días hábiles para la presentación de reclamaciones.

Transcurrido el plazo de 30 días de exposición pública en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa el 16 de agosto de 2024, n.º 157, sin haberse presentado alegaciones, se entiende aprobada de forma definitiva la Ordenanza general de subvenciones de Pasaia y sus organismos autónomos.

Se procede a la publicación del texto completo de conformidad con lo establecido en los artículos 49 y 70.2 de la Ley 7/1985 de 2 de abril, Reguladora de las Bases de Régimen Local.

Contra el presente acuerdo, se interpondrá recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, en el plazo de 2 meses a contar desde el día siguiente a la publicación del presente anuncio, de conformidad con el artículo 46 de la Ley 29/1998, de 13 de julio, de la Jurisdicción Contencioso-Administrativa.

Pasaia, a 30 de septiembre de 2024.—El alcalde, Teo Alberro Bilbao.
(7086)

Ordenanza General de Subvenciones del Ayuntamiento de Pasaia y sus Organismos Autónomos.

— Índice.

Título preliminar. Disposiciones generales.

Capítulo I. Objeto y ámbito de aplicación.

Artículo 1. Objeto.

Artículo 2. Concepto.

Artículo 3. Normativa aplicable.

Artículo 4. Régimen jurídico.

Artículo 5. Exclusiones.

Capítulo II. Disposiciones Comunes a las subvenciones públicas.

Artículo 6. Plan Estratégico de Subvenciones.

Artículo 7. Principios generales.

Artículo 8. Crédito presupuestario.

Artículo 9. Órganos competentes para la concesión de subvenciones.

Artículo 10. Requisitos para el otorgamiento de las subvenciones.

III. kapitulua. Onuradunak eta haien eskubideak eta betebeharrak.

11. artikulua. Pertsona edo erakunde onuradunak.

12. artikulua. Onuradun edo erakunde laguntzaile izateko baldintzak.

13. artikulua. Pertsona edo erakunde onuradunaren eskubideak.

14. artikulua. Pertsona edo erakunde onuradunaren betebeharrak.

15. artikulua. Erakunde laguntzaileak.

16. artikulua. Hizkuntza-irizpideak.

17. artikulua. Berdintasun-irizpideak.

18. artikulua. Ingurumen-irizpideak.

I. titulua. Dirulaguntzak emateko eta kudeatzeko prozedurak.

I. kapitulua. Dirulaguntzak emateko prozedura.

19. artikulua. Emateko prozedurak.

20. artikulua. Diruz lagundu daitezkeen gastuak.

21. artikulua. Diruz lagundu daitezkeen jardueren finantzaketa.

22. artikulua. Beste dirulaguntza batzuekiko bateragarritasuna.

23. artikulua. Udalaren dirulaguntza jardueraren publizitatea.

II. kapitulua. Lehia-araubidean emateko prozedura.

24. artikulua. Prozedura abiaraztea.

25. artikulua. Deialdi irekia.

26. artikulua. Deialdiaren edukia.

27. artikulua. Dirulaguntzaren zenbatekoa eta hura zehazteko irizpideak.

28. artikulua. Eskabideak eta dokumentazioa.

29. artikulua. Akatsak zuzentzea.

30. artikulua. Eskabideak aurkezteko lekua eta epea.

31. artikulua. Instrukzioa eta ebazpen-proposamena.

32. artikulua. Prozeduraren ebazpena.

33. artikulua. Prozeduraren jakinarazpena.

III. kapitulua. Dirulaguntza zuzenean emateko prozedura.

34. artikulua. Zuzenean ematea.

35. artikulua. Aurrekontuan izendun gisa aurreikusitako dirulaguntzen prozedura.

36. artikulua. Lege-mailako arau batek ezarritako dirulaguntzen prozedura.

37. artikulua. Interes publiko, sozial, ekonomiko edo humanitarioko arrazoiengatik zuzenean emateko dirulaguntzak emateko prozedura.

IV. kapitulua. Dirulaguntza publikoak kudeatzeko eta justifikatzeko prozedura.

38. artikulua. Udal dirulaguntzen justifikazioa.

39. artikulua. Onuradunek diruz lagundutako jarduerak azpikontratzea.

40. artikulua. Udal-dirulaguntzen finantza-kontrola.

V. kapitulua. Aurrekontuak kudeatzeko prozedura.

41. artikulua. Ordaintzeko prozedura.

Capítulo III. Personas beneficiarias y sus derechos y obligaciones.

Artículo 11. Personas o entidades beneficiarias.

Artículo 12. Requisitos para obtener la condición de personas beneficiarias o entidades colaboradoras.

Artículo 13. Derechos de la persona o entidad beneficiaria.

Artículo 14. Obligaciones de la persona o entidad beneficiaria.

Artículo 15. Entidades colaboradoras.

Artículo 16. Criterios lingüísticos.

Artículo 17. Criterios de igualdad.

Artículo 18. Criterios medioambientales.

Título I. Procedimientos de concesión y gestión de las subvenciones.

Capítulo I. Del procedimiento de concesión.

Artículo 19. Procedimientos de concesión.

Artículo 20. Gastos subvencionables.

Artículo 21. Financiación de las actividades subvencionables.

Artículo 22. Compatibilidad con otras subvenciones.

Artículo 23. Publicidad de la actividad subvencional del Ayuntamiento.

Capítulo II. Del procedimiento de concesión en régimen de concurrencia competitiva.

Artículo 24. Iniciación del procedimiento.

Artículo 25. Convocatoria abierta.

Artículo 26. Contenido de la convocatoria.

Artículo 27. Cuantía de la subvención y criterios para su determinación.

Artículo 28. Solicitudes y documentación.

Artículo 29. Subsanación de defectos.

Artículo 30. Lugar y plazo de presentación de solicitudes.

Artículo 31. Instrucción y propuesta de resolución.

Artículo 32. Resolución del procedimiento.

Artículo 33. Notificación del procedimiento.

Capítulo III. Del procedimiento de concesión directa.

Artículo 34. Concesión directa.

Artículo 35. Procedimiento de subvenciones previstas nominativamente en el presupuesto.

Artículo 36. Procedimiento de subvenciones impuestas por una norma de rango legal.

Artículo 37. Procedimiento de subvenciones directas por razones de interés público, social, económico o humanitario.

Capítulo IV. Del procedimiento de gestión y justificación de la subvención públicas.

Artículo 38. Justificación de las subvenciones municipales.

Artículo 39. Subcontratación de las actividades subvencionadas por las personas beneficiarias.

Artículo 40. Control financiero de las subvenciones municipales.

Capítulo V. Del procedimiento de gestión presupuestaria.

Artículo 41. Procedimiento de pago.

- II. titulua. Dirulaguntzak itzultzea.
I. kapitulua. Itzulketa.
42. artikulua. Jasotako zenbatekoak itzultzeko arrazoiak.
- II. kapitulua. Dirua itzultzeko prozedura.
43. artikulua. Dirua itzultzeko prozedura.
- III. titulua. Zehapen-araubidea.
I. kapitulua. Dirulaguntzen arloko arau-haustek eta zehapenak.
44. artikulua. Dirulaguntzen arloko arau-hauste eta zehapen administratiboak.
- IV. titulua. Beste xedapen batzuk.
45. artikulua. Interpretazioa.
46. artikulua. Datu pertsonalen babesa.
47. artikulua. Sariak eta bekak.
48. artikulua. Araubide juridikoa.
- Xedapen iragankor bakarra. Prozeduren araubide iragankorra.
- Xedapen indargabetzaile bakarra. Arauak indargabetzea.
Azken xedapen bakarra. Indarrean jartzea.
- V. titulua. Oinarri espezifikoak.
I. eranskina. Euskara.
II. eranskina. Berdintasuna.
III. eranskina. Gizarte Ekintza.
IV. eranskina. Kultura.
V. eranskina. Hezkuntza.
VI. eranskina. Haur, nerabe eta gazteen sustapena.
VII. eranskina. Jarduera fisikoa eta kirola.
VIII. eranskina. Pasaia Musikala.

ATARIKO TITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

I. KAPITULUA. XEDEA ETA APLIKAZIO-EREMUA

1. artikulua. Xedea.

1. Ordenantza honen xedea da Pasaiaiko Udalak eta bere erakunde autonomoek Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren (aurrerantzean, DLO) 3.2 artikuluan ezarritakoaren arabera emandako dirulaguntzak emateko irizpideak eta prozedura arautzea eta finkatzea, eta aipatutako legearen 17.2 artikuluan ezarritakoaren babesean eman da.

2. Pasaiaiko Udalak eta bere erakunde autonomoek ematen dituzten dirulaguntzen helburua onura publikoko edo gizarte-intereseko edozein jarduera sustatzea edo udal-jardueraren osagarri den beste edozein helburu publiko sustatzea izan daiteke, betiere auzo-komunitatearen beharrak eta nahiak asetzen laguntzen badute.

3. Udal-dirulaguntzen deialdi publikoetan edo, zuzeneko emakida bidezkoa denean, kasuan kasuko ebazpen edo hitzarmenetan, zehaztasunez mugatuko dira lortu nahi den xedea, baldintzak eta helburua, hala badagokio.

2. artikulua. Kontzeptua.

1. Ordenantza honen ondorioetarako, dirulaguntzat hartuko da Pasaiaiko Udalak pertsona edo erakunde publiko edo pri-

- Título II. Del reintegro de subvenciones.
Capítulo I. Del reintegro.
Artículo 42. Causas del reintegro de las cantidades percibidas.
Capítulo II. Del procedimiento de reintegro.
Artículo 43. Procedimiento de reintegro.
Título III. Régimen sancionador.
Capítulo I. Infracciones y sanciones en materia de subvención.
Artículo 44. Infracciones y sanciones administrativas en materia de subvención.
Título IV. Otras disposiciones.
Artículo 45. Interpretación.
Artículo 46. Protección de datos personales.
Artículo 47. Premios y becas.
Artículo 48. Régimen jurídico.
Disposición transitoria única. Régimen transitorio de los procedimientos.
Disposición derogatoria única. Derogación normativa.
Disposición final única. Entrada en vigor.
Título V. Bases específicas.
Anexo I. Euskera.
Anexo II. Igualdad.
Anexo III. Acción Social.
Anexo IV. Cultura.
Anexo V. Educación.
Anexo VI. Promoción de la infancia, adolescencia y juventud.
Anexo VII. Actividad física y deporte.
Anexo VIII. Pasaia Musikal.

TÍTULO PRELIMINAR

DISPOSICIONES GENERALES

CAPÍTULO I. OBJETO Y ÁMBITO DE APLICACIÓN

Artículo 1. Objeto.

1. La presente Ordenanza tiene por objeto regular y fijar los criterios y el procedimiento de concesión de subvenciones otorgadas por el Ayuntamiento de Pasaia y sus organismos autónomos en los términos establecidos en el artículo 3.2 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones (en adelante LGS), y se dicta al amparo de lo establecido en el artículo 17.2 de la indicada ley.

2. Las subvenciones que se otorguen por el Ayuntamiento de Pasaia y sus organismos autónomos podrán tener por objeto el fomento de cualquier actividad de utilidad pública o interés social o la promoción de cualquier finalidad pública complementaria de la actividad municipal, siempre que contribuyan a satisfacer las necesidades y aspiraciones de la comunidad vecinal.

3. En las convocatorias públicas de subvenciones municipales o, cuando proceda la concesión directa, en las correspondientes resoluciones o convenios, se delimitará con precisión el objeto, condiciones y finalidad que, en su caso, se persiga.

Artículo 2. Concepto.

1. Tendrá la consideración de subvención, a los efectos de esta Ordenanza, cualquier disposición dineraria, en metálico o

batuen alde egindako edozein diru-xedapen, dirutan edo beste moduren batean, udalerraren eskumeneko gaietan, baldin eta honako baldintza hauek betetzen badira:

a) Onuradunen zuzeneko kontraprestaziorik gabe ematea.

b) Diru emate horrek badakarrela, ezinbestean, helburu jakin bat betetzea, proiektu bat gauzatzea, jarduera bat egitea edo jarrera jakin bat hartzea, horiek guztiak gauzatu edo gauzatu gabe egonik ere, edo egoera jakin bat gertatzea. Dirua jasotzeko, aurretiaz ezarritako betebeharrak eta formalak bete beharko ditu onuradunak.

c) Finantzatzen den proiektuaren, ekintzaren, jarreraren edo egoeraren helburuak onura publikoko edo gizarte intereseko jardura bat edo xede publiko bat sustatzea izan behar du.

3. artikulua. Aplikatu beharreko araudia.

1. Dirulaguntzak ematea eta emailearen eta erakunde onuradunaren arteko harreman juridikoa udal-ordenantza honek, sail bakoitzaren oinarri arautzaile espezifikoei eta dirulaguntza ematen den uanean indarrean dagoen gainerako araudiak arautuko dute.

2. Udal-aurrekontuan izenez agertzen diren eta zuzenean ematen diren dirulaguntzetan, ordenantza hau aplikatuko da dagokion hitzarmen arauemaileak aurreikusten ez duen guztian eta zuzenean ematen diren dirulaguntzei buruzko legezko xedapenekin bat datorrenean.

3. Ordenantza honetan, oinarri arautzaile espezifikoetan eta dagokion deialdian aurreikusi ez den kontu guztietan, honako hauek aplikatuko dira: Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra eta hura garatzeko Erregelamendua (uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartua; aurrerantzean, Dirulaguntzen Erregelamendua), bai eta aplikatzekoak diren gainerako xedapenak ere.

4. artikulua. Araubide juridikoa.

1. Europar Batasuneko funtsen kontura finantzatutako dirulaguntzak kasu bakoitzean aplikatzekoak diren Europar Erki-degoko arauen eta horien garapen- edo transposizio-arau nazionalen arabera arautuko dira. Ordenantza honetan araututako dirulaguntzak emateko eta kontrolatzeko prozedurak osagarriak izango dira Europar Batasunaren funtsen kontura finantzatutako dirulaguntzei zuzenean aplikatzeko arauei dagokienez.

2. Etorkizunean berriazko ordenantza propioa duten gai subentzagarriak ordenantza horren arabera arautuko dira, eta ordenantza hau berriazko ordenantzen osagarri izango da.

5. artikulua. Bazterketak.

1. Diruz lagun daitekeen eremutik kanpo geratzen dira honako hauek:

a) Gizarte Segurantzako sistemaren prestazioak eta antzeko prestazioak.

b) Zerga-onurak eta Gizarte Segurantzaren kotizazioko onurak, bai eta kreditu ofiziala ere.

c) Onuradunak aldeztu aurretik eskatu gabe ematen diren sariak.

d) Hauteskundearen Araubide Orokorrari buruzko Lege Organikoan aurreikusitako dirulaguntzak.

e) Alderdi politikoak finantzatzeko Lege Organikoan araututako dirulaguntzak.

f) Udalbatzako talde politikoentzako dirulaguntzak eta antzekoak.

en otra forma, hecha por el Ayuntamiento de Pasaia, a favor de personas o entidades públicas o privadas, en materias de competencia del municipio y que cumplan los siguientes requisitos:

a) Que la entrega se realice sin contraprestación directa de los beneficiarios.

b) Que la entrega esté sujeta al cumplimiento de un determinado objetivo, la ejecución de un proyecto, la realización de una actividad, la adopción de un comportamiento singular, ya realizados o por desarrollar, o la concurrencia de una situación, debiendo el beneficiario cumplir las obligaciones materiales y formales que se hubieran establecido.

c) Que el proyecto, la acción, conducta o situación financiada tenga por objeto el fomento de una actividad de utilidad pública o interés social o de promoción de una finalidad pública.

Artículo 3. Normativa aplicable.

1. La concesión de las subvenciones y la relación jurídica entre el otorgante y la entidad beneficiaria se regirán por la presente Ordenanza Municipal, por las Bases Reguladoras específicas de cada Departamento, y demás normativa vigente en el momento de su concesión.

2. En las subvenciones que figuran nominativamente en el presupuesto municipal y que se conceden directamente, se aplicará la presente Ordenanza en lo que no hubiera previsto el convenio regulador correspondiente y sea acorde con las disposiciones legales sobre subvenciones de concesión directa.

3. En todo lo no previsto en la presente Ordenanza, Bases Reguladoras específicas, y la correspondiente convocatoria, se aplicará la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones y su Reglamento de desarrollo, aprobado por Real Decreto 887/2006, de 21 de julio (en adelante, Reglamento de Subvenciones), y resto de disposiciones que resulten de aplicación.

Artículo 4. Régimen jurídico.

1. Las subvenciones financiadas con cargo a fondos de la Unión Europea se regirán por las normas comunitarias aplicables en cada caso y por las normas nacionales de desarrollo o transposición de aquéllas. Los procedimientos de concesión y control de las subvenciones reguladas en esta ordenanza tendrán carácter supletorio respecto de las normas de aplicación directa a las subvenciones financiadas con cargo a fondos de la Unión Europea.

2. Las materias subvencionables que en el futuro cuenten con una ordenanza específica propia, se regirán por la misma, siendo la presente ordenanza de aplicación supletoria a las ordenanzas específicas.

Artículo 5. Exclusiones.

1. Se excluye del ámbito subvencionable:

a) Prestaciones del sistema de la Seguridad Social y prestaciones análogas.

b) Los beneficios fiscales y beneficios en la cotización de la Seguridad Social, así como el crédito oficial.

c) Los premios que se otorguen sin la previa solicitud del beneficiario.

d) Las subvenciones previstas en la Ley Orgánica del Régimen Electoral General.

e) Las subvenciones reguladas en la Ley Orgánica de Financiación de los Partidos Políticos.

f) Las subvenciones a los grupos políticos de la Corporación Municipal y análogos.

II. KAPITULUA. DIRULAGUNTZA PUBLIKOETARAKO XEDAPEN KOMUNAK

6. artikulua. Dirulaguntzen Plan Estrategikoa.

1. Pasaiaiko Udalak, dirulaguntzak ezarri aurretik, Dirulaguntzen Plan Estrategiko batean zehaztu beharko ditu dirulaguntzen aplikazioaren bidez lortu nahi diren helburuak eta ondorioak, horiek lortzeko behar den epea, aurreikus daitezkeen kostuak eta finantzaketa-iturriak, betiere aurrekontu-egonkortasunaren helburuak betetzen badira.

2. Udalbatzak onartuko du Dirulaguntzen Udal Plan Estrategikoa. Hiru urteko indarraldia izango du, salbu eta, arrazoituta, beste epe bat ezartzea komeni bada.

7. artikulua. Printzipio orokorrak.

1. Dirulaguntzak printzipio hauen arabera emango dira:

a) Dirulaguntzak borondatezkoak eta behin-behinekoak izango dira, eta horiek emateak ez du eskubiderik sortzen, ez eta aurrekaririk ezartzen ere, gerora eman daitezkeenetarako.

b) Udalbatzak edozein unetan ezeztatu edo murriztu ahal izango ditu, dagokion espedienteaz izapidetu ondoren.

c) Ezingo da eskatu dirulaguntza handitzea edo berrikustea.

d) Ez da dirulaguntzarik emango Udalak bere kabuz bete ditzakeen helburuetarako, dirulaguntzak berak ordezkatzan duen eraginkortasun berarekin eta gastu handiagorik gabe.

e) Ordenantza honetan araututako dirulaguntzen zenbatekoak, hala badagokio, proiektuaren edo jardueraren kostu osoa ordaintzea ekar dezake. Hala ere, zenbatekoa, bakarka hartuta edo beste administrazio publiko batzuekin edo Estatuko zein nazioarteko beste erakunde publiko edo pribatu batzuekin batera hartuta, ezin izango da eskatutako proiektuaren aurrekontua baino handiagoa izan.

f) Berdintasun, publizitate, gardentasun, objektibotasun, eraginkortasun, efizientzia eta diskriminaziorik ezaren printzipioen arabera emango dira dirulaguntzak.

g) Arau hauetan aipatzen diren dirulaguntzen deialdiak, oro har, norgehiagoka-araubidean deituko dira. Dirulaguntzak emateko, beharrezkoa izango da, prozedura bakar batean, eskabide-multzotzat baina gehiago konparatzea, arau hauetan eta, hala badagokio, dagokion deialdia arautu dezaketen berariazko oinarri arautzaileetan ezarritako irizpideekin bat etorritik, eskabideen arteko hurrenkera ezartzeko.

h) Ordenantza honen arabera urtero onartzen diren dirulaguntzen deialdiak argitaratu egingo dira.

8. artikulua. Aurrekontu-kreditua.

1. Dirulaguntzak gastu publikotzat hartuko dira, eta deialdi bakoitzean dirulaguntzei behar bezala erantzuteko aurrekontu-kreditu egoki eta nahikoa egon beharko da.

2. Laguntza ekonomiko horiek emateko, deialdi publiko bat egingo da urtero, eta deialdi horretan udal-aurrekontuan baimendutako gastua finkatuko da.

9. artikulua. Dirulaguntzak emateko organo eskudunak.

1. Pasaiaiko Udalean Alkatetzari dagokio dirulaguntzak emateko eskumena, betiere dirulaguntzaren balioa Erakundearen baliabide arruntaren ehuneko 10 baino handiagoa ez bada, eta Osoko Bilkurari dagokio, dirulaguntzaren balioa adierazitako zen-

CAPÍTULO II. DISPOSICIONES COMUNES A LAS SUBVENCIONES PÚBLICAS

Artículo 6. Plan Estratégico de Subvenciones.

1. El Ayuntamiento de Pasaia, con carácter previo al establecimiento de subvenciones, deberá concretar en el Plan Estratégico de Subvenciones los objetivos y efectos que se pretenden con su aplicación, el plazo necesario para su consecución, los costes previsibles y sus fuentes de financiación, supeditándose en todo caso al cumplimiento de los objetivos de estabilidad presupuestaria.

2. El Plan Estratégico municipal de Subvenciones será aprobado por el Pleno Municipal. Tendrán una vigencia de tres años, salvo que, motivadamente, sea conveniente establecer un plazo diferente.

Artículo 7. Principios generales.

1. El otorgamiento de las subvenciones se realizará de acuerdo con los siguientes principios:

a) Las subvenciones tendrán carácter voluntario y eventual y su concesión no crea derecho ni establece precedente alguno para futuras concesiones.

b) La Corporación podrá revocarlas o reducirlas en cualquier momento, previa tramitación del correspondiente expediente.

c) No será exigible aumento o revisión de la subvención.

d) No se concederán subvenciones para finalidades que el Ayuntamiento puede cumplir por sí mismo con igual eficacia y sin mayor gasto que el representado por la propia subvención.

e) El importe de las subvenciones reguladas en la presente Ordenanza podrá suponer, en su caso, el abono del coste total del proyecto o actividad. Sin embargo, en ningún caso podrá ser de tal cuantía que, aisladamente o en concurrencia con otras Administraciones Públicas o de otros entes públicos o privados, ya sean nacionales o internacionales, supere el presupuesto del proyecto para el que se solicita.

f) Las subvenciones se otorgarán con arreglo a los principios de igualdad, publicidad, transparencia, objetividad, eficacia, eficiencia y no discriminación.

g) Las subvenciones a que se refieren las presentes normas se convocarán, como regla general, en régimen de concurrencia, requiriendo para su concesión la comparación, en un único procedimiento, de una eventual pluralidad de solicitudes entre sí, de acuerdo con los criterios establecidos en estas normas y en las Bases Reguladoras específicas que, en su caso, pudieran regir la convocatoria correspondiente, a fin de establecer una relación entre las mismas.

h) Las distintas convocatorias de subvenciones que se aprueben anualmente, a tenor de esta Ordenanza, serán objeto de la correspondiente publicación.

Artículo 8. Crédito presupuestario.

1. Las subvenciones tendrán la consideración de gastos públicos, y la efectividad de las mismas quedará condicionada a la existencia de crédito presupuestario adecuado y suficiente que se prevea en cada una de las convocatorias.

2. Para el otorgamiento de estas ayudas económicas se realizará anualmente una convocatoria pública, en la que se fijará el gasto autorizado en el presupuesto municipal.

Artículo 9. Órganos competentes para la concesión de subvenciones.

1. En el Ayuntamiento de Pasaia la competencia para conceder subvenciones corresponde a la Alcaldía, siempre y cuando el valor de la subvención no supere el 10 por ciento de los recursos ordinarios de la Entidad, y correspondera al Pleno

batekoa baino handiagoa denean. Gainera, Tokiko Gobernu Bartzarrari eskuordetu ahal izango zaio dirulaguntzak emateko eskumena.

2. Pasaiaiko Udaleri lotuta edo haren mende dauden eta nortasun juridiko propioa duten zuzenbide publikoko erakunde eta gainerako entitateen esparruan, beren estatutuek eskumen hori esleituta duten organoei dagokie eskumena, eta neurri egoikiak hartu behar dituzte epaimahaien, hautaketa-epaimahaien eta pertsona anitzeko gainerako administrazio-organoen izendapenean emakumeen eta gizonen ordezkariak orekatua izan dadin; Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legea bigarrenez aldatzen duen martxoaren 3ko 1/2023 Legearen ondorioetarako. Ordezkariak orekatutzat joko da lau kide baino gehiagoko organoetan sexu bakoitzeko pertsonak gutxienez % 40ko ordezkariak dutenean. Gainerakoetan, sexu bietako pertsonak ordezkariak daudenean.

10. artikulua. Dirulaguntzak emateko baldintzak.

1. Dirulaguntzak emateko, aurretiazko baldintza hauek bete behar dira:

a) Dirulaguntza emango duen administrazio-organoren eskumena.

b) Dirulaguntza ematek eratorritako betebeharrak ekonomikoak erantzuteko aurrekontu-kreditu egokia eta nahikoa egotea.

c) Emakida-prozedura izapidetzea, aplikatu beharreko arauen arabera.

d) Eduki ekonomikoa duten administrazio-egintzak alde aurretik fiskalizatzea, Gipuzkoako Lurralde Historikoko toki-erakundearen aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauan aurreikusitako moduan.

e) Gastua onesteko eskumenak dauzkan organoak oniritzia ematea.

2. Aurreko baldintzez gain, ezinbesteko baldintza izango da, oro har, Pasaiaiko udalerriaren lurralde-eremuan kokatzea honako hauek: proiektuaren xedea, helburua, gauzatzea, jardura egitea, jokabide berezi bat bultzatzea, dagoeneko gauzatuta edo garatzeke, edo diruz lagundu beharreko egoera hori gertatzea. Salbuespenez, diruz lagundutako egoera Pasaiaiko udal-mugarteaz haratagokoa bada, zuzenean edo zeharka onura ekarri behar dio udal-interesari, eta baldintza hori behar bezala justifikatu behar da espedientearen txosten arrazoitu baten bidez, dirulaguntza eman aurretik.

III. KAPITULUA. ONURADUNAK ETA HAIEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

11. artikulua. Pertsona edo erakunde onuradunak.

1. Dirulaguntzen onuradun izango dira dirulaguntza ematea eragin zuen jardura egin behar duten pertsona fisiko edo juridikoak, edo dirulaguntza ematea legitimatzen duen egoeran daudenak.

2. Pertsona edo erakunde onuradunak, diruz lagundutako jarduran, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko eta desberdintasunak ezabatzeko neurriak jasotzeko dituzte, balorazio-irizpideen eta pertsona fisiko edo juridiko onuradunen betebeharren artean, salbu eta txosten arrazoitu baten bidez justifikatzen bada dirulaguntzak genero-arrazoiengatik desberdintasunik ez dagoen esparru bati eragiten diola edo, halakorik bada, dirulaguntzak ez duela eraginik emakumeen eta gizonen egoeran.

cuando el valor de la subvención supere el importe indicado. Además, se podrá delegar en la Junta de Gobierno Local la competencia para la concesión de las subvenciones.

2. En el ámbito de los organismos y demás entidades de derecho público con personalidad jurídica propia vinculados o dependientes del Ayuntamiento de Pasaia, la competencia corresponderá a los órganos que la tengan atribuida por sus respectivos estatutos, y que han de adoptar las medidas oportunas para lograr una representación equilibrada de mujeres y hombres en el nombramiento de jurados, tribunales de selección y demás órganos administrativos pluripersonales, que a los efectos de la Ley 1/2023, de 3 de marzo, de segunda modificación de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres. Se considera representación equilibrada cuando en los órganos de más de cuatro miembros las personas de cada sexo están representadas al menos al 40 %. En el resto, cuando personas de ambos sexos estén representadas.

Artículo 10. Requisitos para el otorgamiento de las subvenciones.

1. Serán requisitos previos para el otorgamiento de subvenciones, los siguientes:

a) La competencia del órgano administrativo concedente.

b) La existencia de crédito presupuestario adecuado y suficiente para atender las obligaciones de contenido económico que se derivan de la concesión de la subvención.

c) La tramitación del procedimiento de concesión de acuerdo con las normas que resulten de aplicación.

d) La fiscalización previa de los actos administrativos de contenido económico, en los términos previstos en la Norma Foral 21/2003 de 19 de diciembre presupuestaria de las Entidades Locales del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

e) La aprobación del gasto por el órgano competente para ello.

2. Además de los requisitos anteriores, será requisito imprescindible que el fin, objetivo, ejecución del proyecto, la realización de la actividad, la adopción del comportamiento singular, ya realizados o por desarrollar, o la concurrencia de la situación a subvencionar, deberá radicar, con carácter general, en el ámbito territorial del municipio de Pasaia. Para el caso excepcional de que la circunstancia subvencionada exceda del ámbito del término municipal de Pasaia, deberá beneficiar al interés municipal de forma directa o indirecta, condición esta última que deberá quedar suficientemente justificada en el expediente, mediante informe motivado, con carácter previo a su concesión.

CAPÍTULO III. PERSONAS BENEFICIARIAS Y SUS OBLIGACIONES

Artículo 11. Personas o entidades beneficiarias.

1. Serán beneficiarias de subvenciones las personas físicas o jurídicas que hayan de realizar la actividad que fundamentó su otorgamiento o que se encuentren en la situación que legitima su concesión.

2. La persona o entidad beneficiaria en la actividad subvencionada deberá incorporar medidas para promover la igualdad y eliminar desigualdades entre mujeres y hombres entre los criterios de valoración y entre las obligaciones de las personas físicas o jurídicas beneficiarias, salvo que mediante informe motivado se justifique que la subvención afecta a un ámbito donde no existen desigualdades por razón de género o que, habiéndolas, la subvención no tiene impacto en la situación de mujeres y hombres.

12. artikulua. *Onuradun edo erakunde laguntzaile izateko baldintzak.*

1. Ordenantza honetan eta sail bakoitzaren oinarri arauzaillean ezarritako baldintzak betetzen dituzten pertsona fisiko edo juridiko guztiek jaso ahal izango dituzte dirulaguntzak, bai eta dagokion deialdiak eta indarrean dagoen legeriak ezarritako gainerako baldintzek ere.

2. Pasaiaiko udalerrian izan beharko dute egoitza edo egoitza soziala. Halaber, onuradun izan daitezke helbide soziala Pasaian izan gabe udalerrarentzat interesgarriak diren jarduerak egiten dituzten pertsonak.

3. Elkarrekin eta fundazioek, dirulaguntzen onuradun izan ahal izateko dagokien Erregistro Ofizialean inskribatuta egon beharko dute.

4. Onuradun izan daitezke pertsona fisikoen edo juridikoen taldeak, publikoak edo pribatuak; ondasun-erkidegoak edo beste edozein unitate ekonomiko, baldin eta, nortasun juridikorik izan ez arren, proiektuak edo jarduerak egin baditzaizkete edo dirulaguntza ematea eragin duen egoeran badaude, betiere deialdi bakoitzean aurreikusten bada.

5. Ezin izango dute dirulaguntzarik jaso, indarrean dagoen araudiaren arabera, eskubide hori mugatuta edo ezabatuta duten pertsonen edo erakundeek. Era berean, ezin izango dute dirulaguntzarik jaso ebazpen irmo baten bidez zehapena jaso dutenek –ebazpenak zehaztutako epean–, ezta Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorren 13. artikuluan adierazitako beste edozein kasutan daudeneke ere.

Era berean, ezin izango zaie dirulaguntzarik eman honako egoera hauek batean dauden pertsona edo erakundeek:

– Uztailaren 28ko 26/2015 Lege Organikoan ezarritakoaren arabera, sexu-delituagatik administrazio-zehapena, lan-zehapena edo zigor penala jaso duten pertsona fisikoak edo juridikoak.

– Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eraginokorrerako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoan eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistari Gabeko Bizitzetarako Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuan ezarritako baldintzak betetzen ez dituzten pertsona fisiko edo juridikoak.

– Emakumeen eta gizonen arteko berdintasun-printzipioaren aurkako helburuak, sarbide-sistemak, funtzionamendua, ibilbidea, praktika, antolaketa edo estatutuak dituzten pertsona fisikoak edo juridikoak, edo arestian azaldutako arrazoiengatik diskriminatzen dutenak.

– Berdintasunerako eskubidea eta lehen adierazitako arrazoiengatik diskriminatua ez izateko eskubidea urratzeagatik administrazio-zehapena, lan-zehapena edo zehapen penala jaso duten pertsona fisiko eta juridikoak.

13. artikulua. *Pertsona edo erakunde onuradunaren eskubideak.*

1. Pertsona edo erakunde onuradunaren eskubidea dute emandako zenbatekoa kobartzeko, dagokion deialdian, hitzarmenean edo emakidaren ebazpenean ezarritako moduan eta baldintzetan. Era berean, deialdiak debekatzen duenean izan ezik, ahalmena izango dute organo emaileari eskatzeko, diruz lagundutako jarduera egiteko epea amaitu baino lehen, emakida-ebazpena aldatzeko, ezarritako epeak luzatzeari, emandako zenbatekoa murrizteari edo jardueran sartzen diren ekintzak aldatzeari dagokienez. Aldaketa horiek onartu egingo dira, baldin eta aldatetok ezusteko gauza batek eragin baditu edo beharrezko badira jarduera egoki gauzatzeko. Dena dela, ezingo da inoiz dirulaguntzaren helburua aldatu, ezta beste batzuen eskubideei kalterik egin ere.

Artículo 12. *Requisitos para obtener la condición de personas beneficiarias o entidades colaboradoras.*

1. Podrán optar a las subvenciones todas aquellas personas físicas o jurídicas que cumplan las condiciones establecidas por la presente Ordenanza y Bases Regulatoras específicas de cada Departamento, por la convocatoria correspondiente, y por las restantes condiciones establecidas por la legislación vigente.

2. Deberán tener su domicilio o sede social en el municipio de Pasaia. Asimismo podrán también ser beneficiarias aquellas personas que sin tener su domicilio social en Pasaia, desarrollen actividades de interés para el municipio.

3. Las asociaciones y fundaciones, para poder ser beneficiarias de subvenciones, tendrán que estar inscritas en el correspondiente Registro Oficial.

4. Podrán acceder a la condición de persona beneficiaria las agrupaciones de personas físicas o jurídicas, públicas o privadas; las comunidades de bienes o cualquier otro tipo de unidad económica que, aun careciendo de personalidad jurídica, puedan llevar a cabo los proyectos o actividades o se encuentren en la situación que motiva la concesión de la subvención, siempre que se prevea en cada una de las convocatorias.

5. No podrán acceder a la concesión de estas subvenciones aquellas personas o entidades que, en virtud de la normativa vigente, tengan limitado o suprimido ese derecho. Asimismo, no podrán obtener subvenciones quienes hayan sido sancionados, por resolución firme, con la pérdida del derecho por el plazo que determine la resolución o se encuentren en cualquiera de los otros supuestos señalados en el artículo 13 de la Ley 38/2003, General de Subvenciones.

Tampoco podrán concederse subvenciones a aquellas personas o entidades en las que concurren alguna de las siguientes circunstancias:

– Personas físicas o jurídicas sancionadas administrativamente, laboralmente o penalmente por delito sexual, de acuerdo a lo establecido por la Ley Orgánica 26/2015, de 28 de julio.

– Personas físicas o jurídicas que no cumplen con los requisitos establecidos por la Ley Orgánica 3/2007 de 22 de marzo para la Igualdad Efectiva de Mujeres y Hombres y el Decreto Legislativo 1/2023, de 16 de marzo, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y Vidas Libres de Violencia Machista contra las Mujeres.

– Personas físicas o jurídicas con objetivos, sistemas de acceso, funcionamiento, trayectoria, práctica, organización o estatutos contrarios al principio de igualdad entre mujeres y hombres, o que discriminan por los motivos anteriormente expuestos.

– Personas físicas y jurídicas sancionadas administrativamente, laboralmente o penalmente por haber vulnerado el derecho a la igualdad y el derecho a no ser discriminado o discriminado por los motivos anteriormente expuestos.

Artículo 13. *Derechos de la persona o entidad beneficiaria.*

1. Las personas o entidades beneficiarias tienen derecho al cobro de la cantidad concedida en los términos y condiciones que se hayan establecido en la respectiva convocatoria, convenio o resolución de concesión. Asimismo, están facultadas, salvo que la convocatoria lo prohíba, para solicitar del órgano concedente, antes de que concluya el plazo para realización de la actividad subvencionada, la modificación de la resolución de concesión en lo concerniente a la ampliación de los plazos fijados, la reducción del importe concedido o la alteración de las acciones que se integran en la actividad, que serán autorizadas cuando traigan su causa en circunstancias imprevistas o sean cuando traigan su causa en circunstancias imprevistas o sean necesarias para el buen fin de la actuación, siempre que no se altere el objeto o finalidad de la subvención y no se dañen derechos de terceros.

14. artikulua. *Pertsona edo erakunde onuradunaren bete-beharrak.*

1. Ordenantza espezifikoek, deialdiek, hitzarmenek edo emate-ebazpenek jasotzen dituzten betebeharrak espezifikoak gorabehera, Pasaiaiko Udalaren eta haren erakunde publikoen dirulaguntzen onuradunen betebeharrak orokorrak honako hauek izango dira:

a) Helburua betetzea, proiektua gauzatzea, ekintza egitea edo dirulaguntza emateko oinarria den portaera hartzea ezarritako epean.

b) Dirulaguntza eman duen organoaren aurrean justifikatzea betekizunak eta baldintzak betetzen direla, dirulaguntza ematea edo jasotzea arrazoitu zuen helburua bete dela, eta jasotako funtsak helburu horretarako erabili direla. Eta horretarako, epe barruan aurkeztuko da dagokion justifikazio-modalitatea, ordenantza honetan aurreikusten den moduan.

c) Ondasun inbentariagarriak eskuratu, eraiki, birgaitu eta hobetzeko dirulaguntzen kasuan, onuradunak dirulaguntza eman den helburu zehatzerako erabili beharko ditu ondasunak, bost urtez, erregistro publiko batean inskriba daitezkeen ondasunen kasuan, edo bi urtez, gainerako ondasunen kasuan.

d) Diruz lagundutako jarduera garatzeko behar diren baimen guztiak lortzea eta haien zehaztapenak betetzea.

e) Elkarteen kasuan, Pasaiaiko Udaleko Elkarteen Udal Erregistroan inskribatuta egotea. Helbide soziala udalerriri horretan ez badute, Eusko Jaurlaritzako Elkarteen Erregistroan edo beste edozein udalerritako erregistroan inskribatuta egon beharko dute.

f) Zerga-betebeharrak (Ogasuna eta Udal Diru-bilketa), Gizarte Segurantzarekikoak eta Pasaiaiko Udalarekikoak egunean izatea.

g) Indarrean dagoen legeriaren arabera, dirulaguntza ematen duen organoak egin beharreko egiaztapen-jarduketak onartzea eta laguntzea, bai eta kontrol-organismoek finantza-arloan egin dezaketen beste edozein egiaztapen- eta kontrol-jarduketa ere, eta jarduketa horiek gauzatzean eskatzen zaion informazio guztia ematea.

h) Kontabilitate-liburuak, erregistro izapidetuak eta gainerako dokumentuak behar bezala ikuskatuak izatea onuradunari kasu bakoitzean aplikatzeko zaion merkataritzako eta sektoreko legeriak eskatutako baldintzetan, bai eta dirulaguntzen oinarri arautzaile espezifikoek eskatzen dituzten kontabilitateko egoera-ori eta erregistro espezifiko guztiak ere, egiaztatze- eta kontrol-ahalmenak behar bezala gauzatzen direla bermatzeko.

i) Jasotako funtsen aplikazioa justifikatzen duten agiriak, dokumentu elektronikoak barne, lau urtez gordetzea, egiaztapen- eta kontrol-jarduketak egin ahal izateko.

j) Organo emaileari jakinaraztea, hala badagokio, diruz lagundutako jarduera finantzatzeko duten beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuk lortu direla edozein administrazio edo erakunde publiko zein pribatutatik, estatukoa zein nazioartekoa izan.

k) Dirulaguntza emateko kontuan hartutako edozein gorabehera objektiboren zein subjektiboren aldaketa jakinaraztea.

l) Jasotako funtsak itzultzea ordenantza honetan aurreikusitako kasuetan.

m) Diruz lagundutako programa, jarduera, inbertsio edo jarduketaren finantzaketaren izaera publikoa hedatzeko neurriak hartzea, diruz lagundutako helburuari egokituak, bai formari bai iraupenari dagokionez; era berean, Pasaiaiko Udalaren irudi instituzionala edo finantzaketa publikoari buruzko legendak jartzea karteletan, oroitzapenezko plaketan, material inpro-

Artículo 14. *Obligaciones de la persona o entidad beneficiaria.*

1. Con independencia de las obligaciones específicas que recojan las ordenanzas específicas, las convocatorias, los convenios o resoluciones de concesión, serán obligaciones generales de las beneficiarias de las subvenciones del Ayuntamiento de Pasaia y sus organismos públicos, las siguientes:

a) Cumplir el objetivo, ejecutar el proyecto, realizar la actividad o adoptar el comportamiento que fundamenta la concesión de las subvenciones en el plazo que se establezca.

b) Justificar ante el órgano concedente el cumplimiento de los requisitos y condiciones, así como la realización de la actividad y el cumplimiento de la finalidad que determinen la concesión o disfrute de la subvención y la aplicación a su finalidad de los fondos recibidos, presentando en plazo la modalidad justificativa en la forma que se prevé en esta ordenanza.

c) Cuando se trate de subvenciones destinadas a la adquisición, construcción, rehabilitación y mejora de bienes inventariables, la beneficiaria deberá destinar los bienes al fin concreto para el que se concedió la subvención, durante un periodo de cinco años, en caso de bienes inscribibles en un registro público, o de dos años para el resto de bienes.

d) Obtener cuantas autorizaciones sean precisas para el desarrollo de la actividad subvencionada y cumplir sus determinaciones.

e) En el caso de las asociaciones, estar inscritas en el Registro Municipal de Asociaciones del Ayuntamiento de Pasaia. En el caso de no tener su domicilio social en este municipio, deberán estar inscritas en el Registro de Asociaciones de Gobierno Vasco o en cualquier otro Registro de otro municipio.

f) Encontrarse al corriente en el cumplimiento de las obligaciones tributarias (Hacienda y Recaudación Municipal) y frente a la Seguridad Social.

g) Someterse y colaborar en los términos de la legislación vigente a las actuaciones de comprobación a efectuar por el órgano competente, así como cualesquiera otras de comprobación y control financiero que puedan realizar los órganos de control, aportando cuanta información le sea requerida en el ejercicio de las actuaciones anteriores.

h) Disponer de libros contables, registros diligenciados y demás documentos debidamente auditados en los términos exigidos por la legislación mercantil y sectorial aplicable a la persona beneficiaria en cada caso, así como cuantos estados contables y registros específicos sean exigidos por las Bases Reguladoras específicas de las subvenciones con la finalidad de garantizar el adecuado ejercicio de las facultades de comprobación y control.

i) Conservar los documentos justificativos de la aplicación de los fondos recibidos, incluidos los documentos electrónicos, en tanto puedan ser objeto de las actuaciones de comprobación y control, durante un plazo de cuatro años.

j) Comunicar al órgano concedente, en su caso, la obtención de otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos que financien la actividad subvencionada, procedentes de cualesquiera Administraciones o entes, tanto públicos como privados, nacionales o internacionales.

k) Comunicar la modificación de cualquier circunstancia tanto objetiva como subjetiva que hubiese sido tenida en cuenta para la concesión de la subvención.

l) Proceder al reintegro de los fondos percibidos en los supuestos previstos en la presente ordenanza.

m) Adoptar medidas de difusión del carácter público de la financiación del programa, actividad, inversión o actuación subvencionada, adecuadas al objeto subvencionado, tanto en su forma como en su duración, como la inclusión de la imagen institucional del Ayuntamiento de Pasaia o leyendas relativas a su financiación pública en carteles, placas conmemorativas, mate-

matuetan eta komunikabideetan, bestelako finantziazio-iturriak adierazi diren maila berean. Betebehar hori ez da eskatuko pertsona fisikoei bideratutako laguntza sozialak direnean.

n) Enpresa onuradunak dirulaguntzen gastuak sektoreko araudi aplikagarrian edo, halakorik ezean, merkataritza-eragiketetan berankortasunaren aurka borrokatzeko neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legean aurreikusitako ordainketa-epeetan ordaindu dituela egiaztatzea.

ñ) Jarduera gauzatzean, pertsonaren oinarritzko eskubiak errespetatuko dira eta indarrean dagoen legeria errespetatuko da.

o) Euskadiko Toki Erakundeek buruzko 2/2016 Legeak eta Euskadiko toki-erakundeetan hizkuntza ofizialen erabilera instituzionala eta administratiboa normalizatzeari buruzko 179/2019 Dekretuak esleitzen dizkion eskumen, betebehar eta planifikaziorako tresnak erabiliz zehaztu ditu Pasaiaiko Udalak hizkuntza-irizpideak.

Irizpide horien ataletako bat da dirulaguntzei dagokiena, eta oinarritzat hartu dira EAEko Administrazio Orokorren eta hari atxikitako Sektore Publikoaren hizkuntza-irizpideak, Eusko Jaurlaritzak 2021ean argitaratu zituenak Gobernu Kontseiluak 2021eko apirilaren 13an onartu eta gero. Dirulaguntzaren onuradunak, beraz, «Hizkuntza Ofizialak Erabiltzeko Irizpideak Pasaiaiko Udalean» dokumentuan jasotako irizpideak bete beharko ditu, betiere honako printzipio hauek errespetatuz:

